

FUNTSEZKO ELKARTEAK


JVC



ALTUS



HOMEDICS®



INDITEX

DHL



Egileak:

Izar Susperregi
Irati Ugalde
Ekaitz Salaberria
Mikel Moriana

Elkarteak negozio-eredu jakin batek funtzionatzea ahalbidetzen duen hornitzaile eta bazkide sarea da. Hainbat arrazoi daude enpresa batek aliantzak egiteko: negozio-eredua optimizatzeko, arriskuak murrizteko eta baliabideak eskuratzeko, hain zuzen ere.

Bestalde, zenbait elkarte mota bereiz ditzakegu: elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoak, lehiakideen arteko aliantza estrategikoak, Negozio berriak sortzeko enpresen arteko elkarteak, edo **Joint Venture** izenekoak eta Erosle eta hornitzaileen arteko harremanak, materialen eskuragarritasuna bermatzeko.

Gure enpresak funtziona dezan beharrezkoa izango da beste enpresekin elkartu eta aliantzak egitea. Izan ere, ezinezkoa da motxila sortzerakoan beharrezkoa den guztia gure kabuz ekoiztea. Baina aliantza horien artean, elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza sortuko dugu, hau da, gure enpresaren negozio ereduarekin lehiakide ez diren enpresekin.

Motxilak bereziki lau zati ditu eta zati bakoitza ekoizteko enpresa batekin hitz egingo dugu.

Aurikularrak sortzeko **JVC** enpresarekin hitz egin eta adostasun batera iritsi nahi dugu, produktu ezin hobeak prezio onean saltzeko. Horretaz gain, motxila bera **Altus** enpresak hornituko lizkiguke. Eta motxila horien barnean joango diren masaje aparatuak **Homedics**ri eskariko dizkiogu. Bukatzeko txanoa motxilari lotzeko **Ternua** enpresarekin hitz egingo genuke.

Aliantzak, batik bat, baliabideak eskuratzeko egingo ditugu eta gure enpresa aurrera eramaten lagunduko digutelako.

Bazkideei dagokienez, gure enpresa ereduan leku txikia izango lukete, izan ere, taldekideak izango gara bazkide nabarmenenak. Dena dela, ehuneko zati bat beste enpresekin kolaborazioak egin eta bazkide izateko izango litzateke, %10a gutxi gora behera. Beti ere, enpresa horiek moda arloan jardun behar du edo moda departamentu bat izan behar dute. Adibidez: Adidas, Audi, Richard Mille, Hugo Boss, PUMA, BMW, Levis...

Aurreko guztia laburbilduz, lau enpresekin elkartuko gara gure enpresa aurrera ateratzeko. Eta enpresa horiei eta beste batzuei gure enpresaren ehuneko txiki batean bazkide izateko aukera emango diegu. Beti ere, gu lauren garrantzia azpimarratuz.